



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 9a

96. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Agoizko udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Agoizko udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Agoizko udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko irailaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Agoizko udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
  - IV.1. Kontu orokorra (6. or.).
  - IV.2. Legezkotasuna (6. or.).
  - IV.3. Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n (6. or.).

IV.4. Aurreko txosteneko gomendioen betetze-mailaren jarraipena (7. or.).

V. Kontabilitateko egoera-orriak (9. or.).

V.1. 2012ko aurrekontu-betetzea (9. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).

VI.1. alderdi orokorrak (14. or.).

VI.2. Langile-gastuak (15. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (17. or.).

VI.4. Transferentzia-gastuak (19. or.).

VI.5. Inbertsioak (19. or.).

VI.6. Zerga bidezko diru-sarrerak (20. or.).

VI.7. Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak (21 or.).

VI.8. Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak. (23. or.).

VI.9. Hirigintza (23. or.).

VI.10. Musika eskolaren patronatua (23. or.).

VI.11. Enpresa publikoak (24. or.).

Agoizko udalari buruzko 2012ko txostenari aurkeztutako alegazioak (25. or.).

Agoizko udalak aurkeztu dituen alegazioei kontuen ganberak eman dien erantzuna (28. or.).

**I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2013ko apirilaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Agoizko Udalari buruzko fiskalizazio txosten bat egin zezan.

Eskari hori betetzeko, Kontuen Ganberaren 2013rako urteko programan sartu zen Agoizko Udalaren eta haren sektore publikoaren 2012ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa.

2008ko maiatzean, Nafarroako Kontuen Ganberak fiskalizazio txosten bat egin zuen 2006ko kontuei buruz.

Agoizko Udala Pirinioen aurreko lurraldeko udalerrri bat da, Iruñetik 30 km-ra dagoena. 13,2 km<sup>13,2</sup>-ko azalera du eta 2.640 biztanle zeuzkan 2012ko urtarrilaren 1ean.

Zerbitzu publikoak emateko, "Musika Eskola" erakunde autonomoa eta Kanpondoa, S.L. sozietatea dauzka. Azken horren ehuneko 100 Udalarena da, eta 2012an eratu zen; kirol instalazioen kudeaketaz arduratzen da.

Entitate hauei buruzko datu nagusiak hauek dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	3.038.309	3.524.193	11
Musika eskola	106.563	106.563	9*

\*Guztiak ere lanaldi partzialean

Gainera, Udalak ondoko entitateetan hartzen du parte:

- Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea
- Urraulbeitiko, Longidako, Irunberriko eta Agoizko Udalen borondatezko elkarte, uraren goi-hornidurarako.
- Halaber, lankidetzaz hitzarmen bat badu Aezkoako Batzarrarekin, euskara zerbitzurako.

Borondatezko elkartearen kudeaketaz Agoizko Udala arduratzen da, eta gero haren gastuak gainerako udalei ordainarazten dizkie.

Laburbilduz, zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan erakusten direnak dira:

### Agoizko Udala-Zerbitzu publikoak

Zerbitzua	Udala	Patronatua	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak	Merkataritza sozietatea	Bestelakoak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X					
Udaltzaingoa						Ez dago
Musika eskola		X				
Zahar-etxea						Jabetza pribatua: erlijiosoak
Gizarte zerbitzuak			Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.			
Hilerria	X					
Hirigintza	X			Hirigintza aholkularia eta arkitektoa		
0-3 urteko haurren ikastetxea				X		
Kultur etxea Kultur etxea	X					
Kirol instalazioen kudeaketa				Urdi esleipen-hartzailea	X (2012ko urritik)	
Liburutegia: Kultur etxea	X					
Ludoteka Kultur etxea	X					
Kontsumitzailearen prestakuntza						Iratxerekin itundua Lankidetzaz hitzarmena. Aezkoako Batzarra
Euskara						
Turismoa		2012ra arte Lanaldi partzialeko kontratua duena				
Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa (EEZB)						Nasursa
Uraren presio handiko hornidura						Udalen Borondatezko Elkartea: Urralbeiti, Longida, Irunberri eta Agoitz
Uraren behe-hornidura	X					
Hiri-hondakinak			Irati Hiri-hondakin Solidoen Mankomunitatea			
Udal eraikinen garbiketa	X			X (2012ko maiatzera arte)		
Lorezaintza	X			X (2012ko apirilera arte)		

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2012ko otsailaren 2an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Ez ziren 2012rako betetze-oinarriak onetsi.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren 2012ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta bosgarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, seigarren atalean, Udalaren eta haren menpeko entitateen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak bildu ditugu, arloz arlo.

Azterketa-lana auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin, 2013ko abenduan hasi eta 2014ko martxora bitarte.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren menpeko entitateetako langileei.

## II. HELBURUA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Agoizko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Udalaren eta haren sozietate publikoaren 2012ko ekitaldiko urteko kontuek Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duten alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Udalak eta haren menpeko entitateek 2012an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren eta haren menpeko enteen finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2006. urteari buruzko fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteez ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu eta osatze aldera.

## III. NORAINOKOA

Agoizko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak honako osagai nagusiak dauzka:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua; bai eta diruzaintzaren egoera-orria, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzailetzaren txostena ere.

- Patronatuaren kontua, Udalaren kontuaren antzeko edukia duena.

- Kanpondoa sozietateak, zeina 2012ko urrian hasi baitzen jarduten, egoera-balantzea eta emaitzen kontua aurkezten ditu. Txosten honetan, azken hiru hilekoan egindako jardueraren datu nagusiak aurkezten ditugu.

- Udalaren kudeaketa ekonomikoa eta aurrekontukoa eta kontabilitatearen kudeaketa langileen beren, aholkulari ekonomikoaren eta langileen nominak egiten dituen aholkularitza-entresaren artean banatuta daude. Eginkizunen banaketa hori, lanerako muga bat izatera iritsi gabe, zailtasun bat da kasu batzuetan espedienteen informazio guztia lortzeko, zeren eta esku hartzen duen bakoitzak dauzkan eginkizunak banatuta eta finkatu gabe baitaude.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuako Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoei dagokienez, berrikusi dira bai haien aurrekontuen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikatutako oinarriko prozedurak; eta ebaluatu dira antolaketa, kontabilitate eta barne kontrolako oinarriko alderdiak.

Kontuen Ganberak Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin zuen. Txosten horretan gomendio batzuk jaso ziren, funtsean honako alderdiei buruzkoak: inbentarioen hobekuntza eta kontrolerako eta aurrekontu-kudeaketarako mekanismoen hobekuntza, eragiketak egoki erregistratzen direla bermatze aldera.

#### **IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA**

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Agoizko Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jaso da txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

##### **IV.1. KONTU OROKORRA**

- Gabezi batzuk aurkitu ditugu Udalaren barne-kontrollean; honakoak, esate baterako:
  - a) Finkatu gabeko erantzukizunak.
  - b) Espediente osatu gabeak.
  - c) Kontabilitateko atzerapena, zeinak eragozten baitu hura kudeaketarako erabiltzea, eta, horrenbestez, hartzekodunen saldoa finkatzea.
- Aurrekontu itxiko eta aurrekontuz kanpoko zordunen saldoak 1,5 milioikoak dira, eta hartzekodunenak, berriz, 0,8 milioikoak. Ez dira aipagarriak eta diruzaintza-gerakinean eragiten dute.
- Diruzaintza-gerakinaren egoera ez da adierazgarria. Desfase hori aurreko urteetatik heldu da, eta haren ondorioz, gure kalkuluen arabera, 224.627 euroko saldo negatiboa 977.058 euroko saldo negatiboa bilakatzen da.
- Oro har, eragiketak kutxako irizpidearen arabera erregistratzen dira, eta diru-sarrerak zorrek konpentsatzen diren kasu batzuetan jasotako zenbateko garbia baizik ez da erregistratzen.
- Ikusten da alde batzuk badaudela Udalaren eta erakunde autonomoaren kasuko saldoen artean.

Gure iritzi, aurreko salbuespenen garrantzia dela eta, Agoizko Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak ez du islatzen egoera ekonomiko-finantzarioaren irudi fidelik, aplikatzekoak diren kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta arauen arabera.

##### **IV.2. LEGEZKOTASUNA**

Udalak ez du aurrekontua betetzeko oinarririk. Ikusten da kasu batzuetan, kontabilitatean dagoen atzerapena dela-eta, gertatzen dela lotura-poltsetan gaindikinak daudela eta diruzaintza-gerakin negatiboa ez dela finantzatzen hurrengo aurrekontuetan. Aurreko salbuespenen eraginengatik ez bada, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz egin dela.

##### **IV.3. UDALAREN FINANTZA-EGOERA 2012ko ABENDUAREN 31n**

Kontu orokorrari buruzko iritzia ez ematearen ondorio gisa, ez dugu azterketa konparatiborik egin udalaren egoera finantzarioari buruz. Izan ere, 2012an, egoera horren ezaugarria da ekitaldi osoan zehar diruzaintza-arazoak egon direla; abenduaren 31n 788.529 euroko zor bizia dagoela; 125.000 euroko diruzaintza-kreditua dagoela, eta ekitaldiaren amaieran 1.013.220 euro daudela ordaintzeko (betebeharren % 33).

Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar dugu 2012ko ekitaldia atipikoa izan dela Agoizko Udalarentzat, eta bertan aurreko urteetatik egiteko zeuden eragiketa edo saldo batzuk berrikusi eta erregularizatu direla.

Hartara, ekitaldi honetan:

- Aurreko ekitaldietatik egiteko zeuden zergen bidezko diru-sarrera batzuk kitatu dira.
- Uraren goi-hornidurarako udalen elkartearekin lotutako eragiketa batzuk, erregularizatzeko zeudenak, kitatu dira.
- Kirol zerbitzuen prestazioa aldatu da: aurreko emakidaren ordean enpresa publiko baten bidezko zuzeneko kudeaketa hautatu da.

Bestalde, ikusten da 2012an hasi dela itzultzen 2009an lortutako mailegua, zentro hidrotermala eraikitzeko eskatutakoa. 726.812 euro egiten du mailegu horrek.

Mailegu hori "zubi" izaerakotzat jotzen zen, zeren eta haren finantzaketa aurreikusita baitzegoen etxebizitza batzuen eraikuntzak ekarriko zituen diru-sarrerekin; alabaina, egungo inguruabarretan, ez da halakorik aurreikusten epe laburrean.

Gainera, obra jakin batzuetarako Itoitz Fundazioaren finantzaketa zegoen, baina amaieran ez da halakorik gauzatu, eta zerbitzu batzuetan (0-3 urtekoen zentroa), diru-laguntza atzerapen nabarmenaz jasotzen da, gastua egiten den unearekiko.

Diruzaintza-gerakinak 224.627 euroko saldo negatiboa du gastu orokorretarako; ganbera honek kalkulaturakoa, ordea, 977.058 euro negatiboa da. Alde hori heldu da, funtsean, Nilsaren kanonaren zenbatekoa ordaintzeko gisa ez sartzetik eta zergen itzulketetatik zenbateko okerrak ondorioztatuz. Gainera, kirol instalazioen BEZaren itzulketa dela-eta errekurso bat badago, Udalaren aldeko epaia duena. Nafarroako Gobernuak, ordea, errekursoa aurkeztu du epai horren aurka. Zenbatekoa 226.000 eurokoa da.

#### IV.4. AURREKO TXOSTENEN GOMENDIOEN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA

Inbentarioa egin da, eta urtero gaurkotzen da. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago haren balioa ez datorrela bat ibilgetuaren kontabilitate-balioarekin.

Gaur egun, erroldak onesten dira kitatzen diren ekitaldi berean.

Ia ez da aurreratu kontabilizatzeko prozesuekin lotutako gainerako alderdietan, eta horrek eragin berezia du aurrekontuz kanpokoen egoera-orrietan eta lotura-poltsetako saldoak gainditzean.

Azken batean, krisiaren ondorioz jada hasita zeuden jarduketak finantzatzeko aurreko urteetako aurreikuspenak ezin gauzatzeko ekarri duen aldaketa ekonomikoak, eta, harekin batera, kudeaketa- eta kontabilizatzeko prozesuetan aurrera egin ez izanak eragin dute Udalak egoera ekonomiko-finantzario zaila edukitzea.

Udalak, egoera horretaz jakitun, 2012an erabaki zuen gastuak gutxitzea eta zergak erregularizatzea, baina neurri horien eragin osoak hurrengo ekitaldietan gertatuko dira.

Halaber, prozedura administratiboak egokitzeko prozesua hasia da, hartara Udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzario egokia errazte aldera.

Gure lanaren ondorioz, honakoa gomendatzen dugu:

- *Kontabilitatea egunean eramatea, kudeaketarako tresna erabilgarria izan dadin, batez ere Udalak bizi duen finantza-egoera zailan.*
- *Kontabilitate-prozesuan esku hartzen duten guztien eginkizunak finkatzea.*

- *Kontabilitatearen administrazio-kudeaketarako prozedurak modernizatzea, halako moduz non tresna informatikoen erabilerak kudeaketa eta kontrola erraztuko dituen.*
- *Urte bakoitzeko aurrekontuaren betetze-oinarriak onestea.*
- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 230. artikuluan aurreikusitako neurriak hartzea, diruzaintza-gerakinaren saldo negatiboari dagokienez.*
- *Itxitako aurrekontuetako saldoak eta aurrekontuz kanpoko saldoak berrikustea, eta BEZaren kasuan, aitorpenak kontabilitateko datuekin berdinkatzea.*

Nabarmendu nahi dugu lana egiten ari ginen bitartean, udal arduradunekin komentatu zirela aurkitutako egitate nagusiak, eta arduradun horiek lanak eta prozedurak hasi zituztela haiek berrikusi eta, kasuan kasu, zuzentzeko.



**V. KONTABILITATEKO EGOERA-ORRIAK****V.1. 2012ko AURREKONTU-BETETZEA****Gastuak**

Kapitulua	Izena	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebehar garbiak	Betetakoa (%)	Guztizkoa ren gaineko ehunekoa
1	Langile-gastuak	585.050	12.000	597.050	602.606	101	20
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	1.512.000	6.365	1.518.365	1.417.568	93	47
3	Finantza-gastuak	30.000		30.000	42.850	143	1
4	Transferentzia arruntak	202.508		202.508	198.067	98	7
6	Inbertsio errealak	2.199.953	665.493	2.865.446	704.265	25	23
7	Kapital-transferentziak	1.500		1.500	0	0	0
8	Finantza-aktiboak	0	3.300	3.300	3.300	100	0
9	Finantza-pasiboak	60.955		60.955	69.654	114	2
<b>Guztira</b>		<b>4.591.966</b>	<b>687.158</b>	<b>5.279.124</b>	<b>3.038.309</b>	<b>58</b>	<b>100</b>

**Diru-sarrerak:**

Kapitulua	Izena	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Guztizkoaren gaineko %
1	Zuzeneko zergak	641.800		641.800	692.172	108	20
2	Zeharkako zergak	239.710		239.710	148.991	62	4
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	489.500		489.500	342.329	70	10
4	Transferentzia arruntak	1.048.050		1.048.050	1.080.632	103	31
5	Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	137.053		137.053	56.591	41	2
6	Inbertsio errealak besterentzea	1.000		1.000	0		0
7	Kapital-transferentziak	2.034.853	688.160	2.723.013	1.203.478	44	34
8	Finantza-aktiboak	0		0	0		0
<b>Guztira</b>		<b>4.591.966</b>	<b>688.160</b>	<b>5.280.126</b>	<b>3.524.193</b>	<b>67</b>	<b>100</b>

## Aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2012	2011
Aitortutako eskubide garbiak	3.524.193	2.145.091
Aitortutako betebeharrak garbiak	3.038.694	2.646.601
<b>Aurrekontu-emaiza</b>	<b>485.498</b>	<b>-501.510</b>
<b>Doikuntzak</b>		
Finantzetaren desbideratze positiboak	539.376	0
Finantzetaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Merkataritzako eragiketen emaitza	0	0
<b>Aurrekontu-emaiza doituia</b>	<b>-53.878</b>	<b>-501.510</b>

## Diruzaintza-gerakina

Izena	2.011	2.012	Kontuen Ganberak 2012rako kalkulatutakoa
Kobratzeko dauden eskubideak	1.123.797	2.094.841	1.405.177
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	219.113	1.333.647	1.289.255
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	891.509	861.306	861.306
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	657.501	690.306	271.034
Bilketa zaileko eskubideak	-644.327	-790.418	-1.016.418
<b>Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>1.142.523</b>	<b>1.827.191</b>	<b>1.889.958</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	602.257	1.013.605	1.013.605
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	344.053	468.195	468.195
Aurrekontuz kanpoko gastuak	196.212	345.389	408.156
+ Diruzaintzako funts likidoak	49.757	47.097	47.097
+ Finantzetaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0
<b>= Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>31.031</b>	<b>314.748</b>	<b>-437.682</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzetara atxikia duten gastuekin	0	539.375	539.375
Baliabide atxikien ondoriozko diruzaintza-gerakina	0		
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	31.031	-224.627	-977.058

## Egoera-balantzea

## Aktiboa

Deskribapena	2012ko kopurua	2011ko kopurua
<b>Ibilgetua</b>	<b>22.489.224</b>	<b>21.784.959</b>
1 Ibilgetu materiala	12.738.236	12.713.640
3 Erabilera orokorrera bideratutako azpiegiturak eta ondasunak	8.872.624	8.192.955
4 Ondasun arruntak	878.365	878.365
<b>Zirkulatuzailea</b>	<b>2.930.224</b>	<b>1.814.597</b>
7 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko zordunak	1.549.478	1.545.726
8 Aurrekontuko zordunak	1.333.647	219.113
9 Finantza-kontuak	47.097	49.757
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>25.419.448</b>	<b>23.599.556</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2012ko kopurua	2011ko kopurua
<b>Funts berekiak</b>	<b>22.803.966</b>	<b>21.599.088</b>
1 Ondarea eta erreserbak	22.887.884	22.143.649
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-83.918	-544.561
<b>Epe luzeko zorrak</b>	<b>788.529</b>	<b>858.183</b>
4 Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	788.529	858.183
<b>Epe laburreko zorrak</b>	<b>1.826.953</b>	<b>1.142.285</b>
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	813.347	540.027
6 Aurrekontuko hartzekodunak	1.013.605	602.257
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>25.419.448</b>	<b>23.599.556</b>

## Emaiza-kontua

Zor

Deskribapena	2012ko kopurua	2011ko kopurua
61 Langile-gastuak	602.605	581.398
62 Finantza-gastuak	42.849	26.929
64 Lana, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.417.567	1.688.686
67 Transferentzia arruntak	198.066	266.234
<b>D80 Ekitaldiaren emaitza korrante negatiboa</b>	<b>0</b>	<b>544.130</b>
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	153.194	1.653
<b>D89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa</b>	<b>83.917</b>	<b>544.561</b>

Hartze  
ko

Deskribapena	2012ko kopurua	2011ko kopurua
70 Salmentak	342.329	356.511
71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	56.590	20.423
72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuoak	683.070	559.835
73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	124.631	119.349
76 Transferentzia arruntak	1.080.632	898.795
77 Kapitalaren gaineko zergak	33.461	64.202
<b>H80 Ekitaldiaren emaitza korrantea</b>	<b>59.625</b>	<b>0</b>
H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	9.651	1.223
<b>H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

## Musika Eskolako Patronatuaren 2012ko aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak:

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobranta (%)
Matrikulen bidezko diru-sarrerak	54.000	61.585	114	61.255	99
Transferentzia arruntak	59.198	44.978	76	36.307	81
Ondare bidezko diru-sarrerak	2	0	6	0	100
<b>Guztira</b>	<b>113.200</b>	<b>106.563</b>	<b>94</b>	<b>97.562</b>	<b>92</b>

Gastuak

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)
Langile-gastuak	102.000	96.836	95	86.171	89
Ohiko gastuak	11.000	7.469	68	5.025	67
Finantza-gastuak	200	2.258	1.129	2.258	100
<b>Guztira</b>	<b>113.200</b>	<b>106.563</b>	<b>94</b>	<b>93.454</b>	<b>88</b>

## Kanpondoa Sozietatea, SL

## Egoera-balantzea

## Aktiboa

Deskribapena	2012ko ekitaldia
Aktibo arrunta	3.642
Bezeroak, salmenten eta zerbitzuen ondorioz	3.642
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	9.378
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>13.021</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2012ko ekitaldia
Ondare garbia	-9.740
Eskrituratutako kapitala	3.300
Ekitaldiko emaitza	-13.040
<b>Pasibo arrunta</b>	<b>22.761</b>
Epe laburreko zorrak	22.761
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>13.021</b>

## Galeren eta irabazien kontua

Deskribapena	2012ko ekitaldia
Negozio-zifraren zenbateko garbia	74.204
Langile-gastuak	-64.008
Bestelako ustiatze-gastuak	-23.282
<b>Ustiapeneko emaitza</b>	<b>-13.086</b>
Diru-sarrera finantzarioak	46
Zerga aurreko emaitza	-13.040
<b>Ekitaldiko emaitza</b>	<b>-13.040</b>

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak eta bere erakunde autonomoak beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2012ko ekitaldirako aurrekontua otsailaren biko bilkuran onetsi zen, eta 2012ko maiatzaren 21ean argitaratu zen behin betiko NAOn.

Kontuak 2013ko abenduaren 5eko bilkuran onetsi ziren.

Ondasunen inbentarioan bilkura berean eguneratu zen.

Kreditu-gehikuntza dagokion espedientea egin gabe bete zen.

2012an, aurreko ekitaldietako saldo batzuk erregularizatu dira.

Oro har, kudeaketa ekonomikorako eta aurrekontu-kudeaketarako eskuzko prozedurak erabiltzen dira, gehiegizko lan administratiboa dakartenak.

Kontabilitate-kudeaketa udal langileek eta aholkulari batek partekatzen dute, eta, gure iritziz, eginkizunak eta erantzukizunak mugatu gabe daude. 2012an eta 2013an, atzerapenez egin dira, eta horrek eragotzi du haiek kudeaketarako erabiltzea eta beste erregistro batzuk eduki behar izatea udal kontuen egoera ezagutzeko. Erregistro horiek, ordea, ez dira beti prest egoten behar direnerako.

Udalaren epe luzerako zorra honakoa da:

Entitatea	Zertarako eman den	Emandako zenbatekoa	Emateko data	Mugaeguna	Zor bizia
Santander	Zentro hidrotermala	726.812	2009	2024	670.904
Santander	Biltegia	66.111	2001	2016	15.426
CAN-CAIXA	Etxebizitza	180.304	2000	2021	102.199
		<b>973.227</b>			<b>788.529</b>

Gainera, diruzaintzako mailegu bat badago, 125.000 eurokoa.

Nabarmendu nahi dugu udal bulegoetako espazioen banaketa ez dela egokiena herritarrei zerbitzua emateko eta, batzuetan, udal jardueren kudeaketa zailtzen duela.

Hona gomendatzen duguna:

- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea.*
- *Kontabilitate-prozedura eta hartan esku hartzen duten pertsona guztien eginkizunak definitzea.*
- *Eskuzko prozedura administratiboen ordez, prozedura informatizatuak ezartzea, halako moduz non lana erraztuko duten eta bideratuko duten kontabilitatea atzerapenik gabe egin dadila.*
- *Nafarroako Toki Administrazioarentzako Kontabilitate Instrukzio Orokorra ezartzea, zeina derrigorrezkoa baita 3.000 biztanletik gorako udalentzat, baina, praktikan, 2.000 biztanletik gorako ia udal guztiek erabiltzen duten.*
- *Udal bulegoen banaketa aldatzeko aukera aztertzea.*
- *Kreditu-gainerakuntzak izapidetzea.*

## VI.2. LANGILE-GASTUAK

Udalaren langile-gastuak 602.605 eurokoak da. Kopuru horrek Udalaren gastu guztien ehuneko 20 egiten du. Betetze-maila ehuneko 101ekoa da.

2011rekin alderatuta, ehuneko 4 egin du gora, honako xehetasunena arabera:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		
	2011	2012	Aldea (%)
Udalbatzako kideak	50.000	44.125	-11,75
Funtzionarioak	161.496	131.283	-18,71
Lan-kontratadun finkoak	68.794	69.908	1,62
Aldi baterako lan-kontratadunak	116.297	137.071	17,86
Kuota sozialak	184.811	220.219	19,16
	<b>581.398</b>	<b>602.606</b>	<b>3,65</b>

Gastuaren igoera sortu da garbiketarako eta lorezaintzarako langileak kontratatzearen ondorioz, Udalak haien kudeaketa hartu baitu bere gain, enpresa esleipen-hartzailearen ordeaz.

2012ko plantilla organikoa 2012ko otsailaren biko Osoko Bilkuran onetsi zen hasiera batez, eta behin betiko onespena 2012ko maiatzaren 21eko NAO n argitaratu zen. Hona gastu horien xehekako azalpena:

Funtzionarioak	Kopurua	Maila	Egoera
Idazkaria	1	A	Lanpostu hutsa
Ofizial administraria	2	C	jardunekoa
Lehen mailako ofiziala	1	C	jardunekoa
Zerbitzu anitzak	2	D	jardunekoa
<b>Guztira</b>	<b>6</b>		
<b>Lan kontratadun finkoak</b>			
Kultura koordinatzailea	1	B	jardunekoa
Ofizial administraria	1	C	jardunekoa
Zerbitzu anitzak	1	E	jardunekoa
Zerbitzu anitzak	1	E	Iraungitzeakoa.
Zerbitzu anitzak	1	D	jardunekoa
<b>Guztira</b>	<b>5</b>		

Idazlari lanpostu hutsa behin-behineko idazkari batek betetzen du administrazio-kontratazioaren araubidean.

2012ko azaroaren 22ko NAO n, plantilla organikoaren aldaketa bat argitaratu zen, ikastetxe publikorako etxezain lanpostua sortuta.

Horretaz gainera, aldi baterako lan-kontratupeko honako langileak daude:

- Garbiketarako lau pertsona, lanaldi erdian.
- Zerbitzu anitzetarako pertsona bat, lanaldi osoan.
- Hainbat zerbitzutarako pertsona bat.
- Hainbat zerbitzutarako pertsona bat.
- Turismo bulegorako pertsona bat, lanaldiaren laurdenarekin.

Musika eskolako lanpostuak dagokien atalean iruzkindu ditugu.

Garbiketa eta lorezaintza zerbitzuetarako kontratazioak egiten dira Udalak lan horiek bere gain hartu eta bere baliabideekin egiten hasten denean.

2013an, 19/2013 Foru Legeari jarraituz, Udaleko langile finkoen funtzionaritzatze prozesu bat hasi zen.

Egindako lanetik, honakoak ondorioztatzen ditugu:

- Nominaren kudeaketaz kanpoko aholkularitza enpresa bat arduratzen da. Kontabilizatze-lanetarako ez dago laborpen-zerrendarik; horrenbestez, nominako ordainagirien bidez kontabilizatzen da. Alkatearen eta montepiorako kotizatzen duen langilearen nominak aholkulari ekonomikoak egiten ditu. Aholkulari hori bera arduratzen da profesionalen atxikipenak egiteaz.

- Prozesu horren guztiaren kudeaketa barreiatuegi dago, eta Udalak ez du nominen prozesuaren kontrol edo berrikuspen orokorrik egiten.

Oro har, egindako gastuak zuzenak dira, baina honakoak nabarmendu behar ditugu:

- Gizarte Segurantzaren gastuan, 113.962 eurokoan, 2011ko azaroari eta abenduari dagozkien 13.875 euro sartzen dira.

- Kontuetan saldoa zegoen arren, kasu batean ikusi da gizarte segurantzaren zenbatekoak helbideratutako banku-kontuan ez zegoela behar adinako saldoa. Horrek berarekin ekarri du 6.598 euroko errekgua ordaintzea.

- Iraileko enpresa-kuota eta langile baten ekaineko atxikipena ez dira kontabilizatu.

- Ogasun Publikoarekiko aurrekontuz kanpoko kontuen saldoak eta Gizarte Segurantzakoak ez dira zuzenak.

- PFEZaren hiru hilez behingo aitortpenen kontabilizatzea kutxa-irizpidearen arabera egiten da, baina ez dira sartzen 2011. urteari dagozkion 16.042 euro, ez eta ekitaldia ixteko garaian ordaintzeko zeuden 2012ko aitortpenetako 32.558 euro ere.

- 2014ko otsailean aurkezten era ordaintzen dira 2012ko bigarren hiruhilekoko PFEZaren atxikipenak.

Hona gomendatzen duguna:

- *Nominen kudeaketarako prozedura orokorra berrikustea eta prozesuan esku hartzen duen pertsona bakoitzaren erantzukizun eta betebeharrak definitzea, bai eta Udalak kanpoko enpresek egindako langien gainean eduki beharreko kontrola ere.*

- *Aurrekontuz kanpoko kontuen saldoak aztertzea eta, hala badagokio, erregularizatzea.*

Osoko Bilkurak erabaki zuen 2012ko abenduko aparteko soldata kentzea, 20/2012 Errege Dekretua aplikatuz, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean ordaintzeko betebeharrak bat aitortu zuen kontzeptu hori dela eta.

Foru lege horrek, bere artikuluko bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordaineko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa aurkeztu da, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.



Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekursoak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

#### Udalbatzako kideen ordainsariak:

Kontzeptu hori dela eta 2012an aitortutako betebeharrak 44.125 euro egiten dute: alkatearen soldata gordinari (28.045 euro) eta Udalbatzako kideak osoko bilkuretara joateagatik sariari (16.080 euro) dagozkie.

Osoko Bilkurak 2011ko ekainaren 23an hartutako erabakiaz, 2012ko maiatzaren 22an egindako udal hauteskunde ondoan, honakoa onetsi zen:

Alkatearen arduraldi eskusiboarengatik ordainsari gisa hilabetean 2.014,28 euro gordinako zenbatekoa ezartzea, urtean 14 hileko ordainketatan ordaindua, eta hari Gizarte Segurantzaren alta ematea.

Zinegotziek Osoko Bilkuretara joateagatik ordainsari gisa bilkura bakoitzeko 120 euroko zenbatekoa ezartzea, hilean bi osoko Bilkurako gehienekoarekin. Ondoren, 2012ko abenduan, hori aldatu zen, eta hilabete bakoitzeko gehienez Osoko Bilkura bat ezarri zen.

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Aurrekontuko 2. kapituluko gastuek 1,4 milioi euro egiten dute guztira, eta guztizko gastuaren ehuneko 47 dira. Betetze-maila ehuneko 94koa da. 2011rekin alderatuta, ehuneko 16 egin du behera, honako xehetasunena arabera (eurotan):

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Aitortutako betebeharrak		
	2011	2012	Aldea (%)
20 Alokairuak	11.586	11.510	-1
21 Kontserbatzea eta mantentzea	280.448	218.942	-22
22 Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.390.537	1.185.894	-15
23 Dietak	6.115	1.222	-80
<b>Guztira</b>	<b>1.688.686</b>	<b>1.417.568</b>	<b>-16</b>

Datu horietatik ondorioztatzen da ahalegin bat egiten ari dela gastuak gutxitzeko, eta hori artikuluko ekonomiko guztietan islatzen dela.

Nabarmendu beharra dago abenduaren 31n zenbatekoaren ehuneko 39 zegoela ordaintzeko.

Ondokoenak dira gastu garrantzitsuenak:

Gastuak	
0-3 urtekoen zentroaren gastuak	210.840
Jaietako eta eguberrietako gastuak	159.647
Zerbitzu profesionalak	154.408
Igerilekuen mantentzea	92.068
Igerilekuaren eta kirol jardueren kudeaketa	95.656
<b>Guztira</b>	<b>712.619</b>

Zenbait kontusail berrikusi dira, kapituluko gastuaren ehuneko 74 egiten dutenak.

Hauek dira azterketa honetatik atera ditzakegun datuak:

- Igerilekuen eta beste kirol instalazio batzuen mantentzea. 2011n 100.785 euroko gastua kontabilizatu zen. 2012rako hasierako aurreikuspena, berriz, 30.000 eurokoa zen eta amaierako

gastua 92.068 eurokoa. Zenbateko hori igerilekuan antzemandako ihesei dagokie. Izan ere, horrek gas kontsumo handia eragin zuen. Egindako zigilatze lanek aukera eman zuten ihesak eta kontsumoa zuzentzeko.

- Zerbitzu profesionalak. 154.408 euroko gastua ageri da. Nagusiki, kopuru hori dagokie katastroaren mantentzeari, aholkularitza ekonomikoari, informatikako mantentze-lanari, berankortasunaren kobrantzaren kudeaketari eta hirigintzaren arloko aholkularitzari. Katastroko mantentzea kenduta, gastuetako bakarra ere ez da 15.000 eurotik gorakoa. Izan ere, zenbateko hori da faktura aurkezteko baldintza daukan kontratazioa egiteko.

Ikusi da profesional horiek urte asko daramatzatela beren zerbitzuak Udalari ematen, eta batzuetan kontraturik ez dagoela.

- Jaietako eta eguberrietako gastuek, 159.647 euroko betetzearekin, ehuneko 25 egin dute behera aurreko urteko gastuekin alderatuta.

- "Argiteria publikorako eta ponpaketarako argiaren" hornidurak eta "ikastetxeko argia eta gasa" hornidurak, 86.458 euroko eta 30.990 euroko gastuarekin, ehuneko 22 eta ehuneko 6 egin dute gora, hurrenez hurren, aurreko urtekoen aldean.

- Udal eraikinen garbiketa. 52.988 euroko betetzea izan da eta ehuneko 22 jaitsi da aurreko urteko betetzetik.

2012ko urritik, garbiketa sistema aldatu da –lehen enpresa bati esleituta zegoen–, eta orain zuzenean kudeatzen da. Horretarako, lau pertsona kontratatu ziren.

Udalaren datuen arabera, garbiketa-gastuaren jaitsiera ehuneko 8koa izan zen 2012an eta ehuneko 32koa 2013an.

- Igerilekuen eta beste kirol jarduera batzuen kudeaketa. 95.655 euroko zenbatekoarekin, ehuneko 50 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuta. Horren arrazoia da, neurri handi batean, sistema-aldaketa, zeren eta urrian zuzeneko kudeaketara jo baitzen, enpresa publiko baten bitartez.

Horri dagokionez, adierazi beharra daukagu igerilekuen zuzeneko esleipena 2007an gertatu zela, bost urteko eperako. Kontratuaren arabera, enpresak urtean 5.100 euroko kanona ordaintzen du, gehi BEZa, bai eta etekinek egiten duten kopuruaren ehuneko 55 ere. Kontratuaren exekuzioa errentariaren arriskuz eta zortez egiten da.

Baldintza-orrietan, ez zen aurreikusi defizita egoteko aukerarik.

Gero, Udalak kudeaketa-defizita konpentsatzeko konpromisoa hartu zuen enpresarekin. Horri dagokionez, adierazi beharra dago urte bakarrean ere ez dela etekinik izan.

Udalak instalazioek azken hiru urteetan izan duten defizitaren kalkulu bat egin du, 2012ko urrian kudeaketan izan den aldaketa kontuan izanda. Hona:

Kontzeptua	2011	2012	2013
Diru-sarrerak:	242.737	287.038	302.371
Langileak	-305.347	-277.265	-249.654
Ustiapen gastuak	-212.641	-198.931	-207.140
Beste gastu batzuk	-3.690	-3.597	-270
<b>Guztira</b>	<b>-278.941</b>	<b>-192.755</b>	<b>-154.693</b>

Praktikan, Udalak ez zuen inongo kontrolik egiten errentariak emandako datuei buruz.

- Banku-komisioen eta kontuen mantentze- eta administrazio-gastuengatik ordaindutako kopurua, 2012ko irailera arte, 10.808 eurokoa da; horrenbestez, Osoko Bilkurak erabaki zuen banku-zerbitzuak lizitaziora ateratzea, eta urritik aurrera kopuru horiek jaitsi egin ziren.

- Kontabilitatea eramatean gertatzen den atzerapenak eragiten du lotura-poltsetan gaidikinak egotea.
- Udalaren finantza-egoerak bideratzen du ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden gastuen ehuneko handia egotea.
- Ondorengo egitate gisa, nabarmendu behar dugu egoera ekonomikoa dela-eta dagoen kezkaren ondorioz, 2013an egindako jarduerak berrikusteko lan bat kontratatu zela, gastuak gutxitzeko aukera aztertzeko xedez.

Hori guztia dela eta, hona gure gomendioak:

- *Exekuzio oinarriak landu eta onestea, eta kontabilitatea eguneratuta eramatea, kontusailen egoera erreala ezagutzeko eta gastuak egoki egiteko behar diren aurrekontu-aldaketak egiteko.*
- *Kanpoko zerbitzuetarako kontratuak egitea kasuan kasu aplikatzekoa den araudiaren arabera.*
- *Zerbitzuen kudeaketarako kanpoko kontratazioak egiten diren kasuetan, orrietan egon daitekeen kasuistika guztia jasotzea, eskatutako betekizunen eta justifikazioen kontrol efektiboa egitea eta ez aldatzea geroztik esleipenerako funtsezkoak diren betekizunak.*

#### VI.4. TRANSFERENTZIA-GASTUAK

Transferentzia arrunten kapituluko betetzea baino ez du aurkezten. 198.067 euroko zenbatekoa egiten du, eta ehuneko 26 egin du behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Hona hemen azalpen banakatua:

Transferentzia arruntak	
Mankomunitateei	87.515
Familiei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei	110.552
	198.067

Kontzeptu garrantzitsuenak honakoei dagozkie:

Izaga Mankomunitaterako ekarpena	43.890
Aezkoa Ibarreko euskara zerbitzua	42.646
Musika Patronatua	24.871
Cederna	23.884

Udalak ez du aurrekonturako betetze-oinarririk, ez eta diru-laguntzak emateari buruzko araudi erregulatzailek edo haiek erabiltzeari buruzko justifikaziorik ere.

*Gomendatzen dugu erregulatzea diru-laguntzen ematea eta haien xedearen justifikazioa.*

#### VI.5. INBERTSIOAK

Kapitulu honek 704.265 euroko betetzea du; hau da, aurreko urtekoa baino nabarmen handiagoa izan da, zeren eta hura 69.783 eurokoa izan baitzen.

Behin betiko aurreikuspenek 2,9 milioi egiten zuten; hortaz, haren betetze maila ehuneko 27koa da.

Ehuneko txiki horren arrazoia "uraren goi-hornidura" obra izan da; izan ere, 1,7 milioi euroko aurreikuspenak zeuzkan. 2012ko azaroaren 29an esleitu zen eta lehenengo ziurtagiria 2013an eman zen. Betetako zenbatekotik ehuneko 40 ordaintzeko zegoen abenduaren 31n.

Hiru obra berrikusi dira. Haien aitortutako betebeharrekin 512.011 euro egiten dute.

Obra	Zenbat lizitatzaille	Lizitazio-aurrekontua	Esleipenaren zenbatekoa	Gastua, guztira	Esleipen prozedura
Antzinako biltegiako bidea egokitu eta hobetzea	3	115.723	109.008	116.911	Negoziatua, publizitaterik gabe
Labeko Zeharkalea eta Errotako Aldapa kaleetako sareak berritzea eta zolaberritzea	3	367.074	363.403	363.123	Publizitaterik gabe negoziatua
Uraren goi-hornidura 4. eta 5. faseak	7	1.820.900	1.781.387	-	Irekia

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

Hiruretan, baldintzen orrietan ezarritako balorazio metodoak 90 puntu bitarte ematen dizkio eskaintza teknikoari eta 10 puntu bitarte eskaintza ekonomikoari. Irizpide hori dela eta, obrarik garrantzitsuena eskaintzarik garestienari esleitzen zaio, teknikoki hobekien baloratutako bigarren eskaintza merkeena izan arren.

Hala eta guztiz ere, Kontratuei buruzko Legea aldatzen duen otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legeak, 51. artikulua berria, ezartzen du ezen esleipena eskaintzarik aldekoenari egiten zaionean, gutxienez ere puntuazioaren ehuneko 50 formula baten arabera irizpide objektiboengatik eman beharra dagoela.

Aurreikusitako finantzaketa-planetan, lehenengo bi obretarako Itoitz Fundazioaren 76.688 euro zeuden, baina kopuru hori ez zen jaso.

Hona gomendatzen duguna:

• *Eskaintza teknikoei eta ekonomikoei eman beharreko balorazioak berrikustea, zeren eta prezioa esleipenerako irizpide garrantzitsua baita, eta haren izaera objektiboak prozedurari gardentasun eta inpartzialtasun maila handiak ematen baitizkio. Hori dela eta, horri esleipen-irizpide gisa balio txikiena emateak gauza berezia izan behar du.*

## VI.6. ZERGA BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Tributu bidezko diru-sarreretan betetze-maila hauek izan dira:

	Aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)
Zuzeneko zergak	641.800	692.172	108
Zeharkako zergak	239.710	148.991	62
Tasak eta prezioak	489.500	342.329	70
<b>Guztira</b>	<b>1.371.010</b>	<b>1.183.492</b>	<b>86</b>

Abenduaren 31n kobratzeko dagoena aitortutako eskubideen ehuneko 26 da.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, honakoa izan da zergen eta tasa garrantzitsuenen bilakaera:

	2011	2012	Aldea (%)
Landa-lurren kontribuzioa	1.639	1.639	-
Hiri-lurren kontribuzioa	313.892	336.191	7
Ibilgailuak	119.349	124.632	4
Lurren balio-gehikuntza	64.202	33.462	-48
JEZ	62.593	196.249	214
EIOZ	181.712	148.991	-18
Ur-hornidura	130.852	128.081	-2
0-3 urtekoen ikastetxea	69.361	73.517	6
Lurraren eta lur-azpiaren erabilerak	60.740	70.561	16

Nabarmentzekoa da zeharkako zergen (EIOZ) betetzearen ehuneko txikia, zeinak aurreikusitakoaren ehuneko 62 egiten baitu, eta JEZaren igoera; horren arrazoiak da enpresa bati 2010ko eta 2011ko zerga erregularizatu zaiola, nahiz eta egiazki 2013an kitatu den.

Egindako azterlanetik ondorioztatzen da:

- Erroldetako zenbatekoak bat datoz diru-bilketarekin eta kontabilitatearekin, baina aipatu beharra dago 2012an aurreko urteetako zenbatekoak erregularizatu direla. Halaber, adierazi beharra dago uraren laugarren hiruhilekoaren errolda bi aldiz kontabilizatu dela, oker bat dela medio. Urari dagokion aurrekontuko 23.725 euro, gehi aurrekontuz kanpoko 22.931 euro, BEZari eta saneamendu kanonari dagozkienak. Kontabilizatze horrek eragina du diruzaintza-gerakinean.

- Kudeaketa- eta kontabilitate-prozedurek ez dituzte baliabide informatikoak erabiltzen; hori dela eta, eskuz lan gehiegi egin behar izaten da, eta kontabilizatzean atzerapenak gertatzen dira.

- Ez dira beti irizpide berak aplikatzen hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga kitatzeko eta egiteko dauden kobrantzak agente exekutiboari bidaltzeko.

- Aurrekontuz kanpokoetan, saneamendu kanona kontabilizatzen da, baina ez NILSarekiko zorra, nahiz eta bera den kanonaren azken hartzailea. Ez kontabilizatze horrek eragina du diruzaintza-gerakinaren saldoan.

Hona gomendatzen duguna:

- *Udal kudeaketarako prozedura informatikoak gehiago erabiltzea; diru-bilketa kontabilitatearekin lotzea; diruzaintzaren kontrol informatizatua; kontagailuen datu-hustuketa automatikoki egitea.*

- *Zorroztasun handiagoa hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren kitapenari dagokionez.*

- *Arintasun handiagoa izatea ordaintzeko dauden ordainagiriak agente exekutiboari bidaltzean.*

- *Aurrekontuz kanpoko gastuen eta diru-sarreraren eragiketarako eta diruzaintzan daukaten eragina kontabilizatzea.*

- *Landa-lurren eta hiri-lurren kontribuzioa doitzea lurraren gaineko kontribuzioari buruzko araudi indardunaren arabera.*

- *Transferentzia gisa kontabilizatzea, eta ez tasen, prezioen eta bestelako diru-sarreraren 3. kapituluan, Nafarroako Gobernuaren 1.389 euroko diru-laguntza.*

## VI.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

1.080.632 euroko exekuzioa dute. Aurreikusitakoaren ehuneko 103 dira eta diru-sarrera guztien ehuneko 31 egiten dute. Aitortutako eskubideen ehuneko 76 kobratu da.

Aurreko urtekoekin alderatuta, aitortutako eskubideek ehuneko 20 egin dute gora.

Kontusail nagusiak, transferentzien ehuneko 81 egiten dutenak, honako kontzeptu hauei dagozkie:

<b>Transferentzia arruntak</b>	
Toki ogasunen funtsa	605.814
Uraren goi-hornidurarako finantzaketa-hitzarmena	168.984
Nafarroako Gobernuak 0-3 urtekoen zentrorako emandako diru-laguntza	102.481
<b>Guztira</b>	<b>877.279</b>

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Toki Ogasunen Funtsa garbiaren arabera kontabilizatu da, zeren eta NILSari ordaindu gabeko kanonaren zenbatekoa deskontatzen baita (2012an, 30.517 euroko zenbatekoa).

- Uraren goi-hornidurarako finantzaketa-hitzarmena

Kontusail honi egozten zaizkio elkarte osatzen duten gainerako udalen artean (Urraulbeiti, Longida, Irunberri) uraren goi-hornidurarako konponbidearen funtzionamenduak eragindako gastuen banaketaren ondoriozko diru-sarrerak. Izan ere Agoizko Udalak hartzen du gastu hori bere gain, 2008ko irailaren 8an izenpetutako finantzaketa-hitzarmenaren arabera.

Uraren goi-hornidurarako borondatezko elkarte bat eratzea erabaki zen, Itoizko urtegiko ura erabiliz, eta hari atxiki zitzaizkion, beren borondatez, Agoizko, Urraulbeitiko, Longidako eta Irunberriko udalak.

Obra lau udalei ur-hornidura emateko dimentsio egokiekin egin zen, honako konpromisoarekin: behin abian jarrita, udal horiek Itoizko ura baino ez zuten hartuko.

Finantzaketa-hitzarmenaren arabera, aurreikusitakoa da Agoitz arduratzea konponbidearen kudeaketa integralaz, Nafarroako Ubidearekiko lotunetik (Agoitzen) hasi eta Irunberriko (urrunen dagoen herria) ur-biltegiataraino. Agoizko Udala da kudeaketa horren gastuak bere gain hartzen dituen: langileak, mantentzea, hornidura eta abar. Finantzaketa hitzarmenak ezartzen du gero gainerakoekin kitatuko duela hori, kuota finko baten bitartez (ura eskuratzeko eskubide gisa) eta kontsumoaren araberrako aldagai baten bitartez.

2008tik, Agoitz gastu guztiak hartu ditu bere gain, eta 2012ra arte ez du ez erregularizatu, ez kitatu aurreko urteetako zorrak.

Hitzarmenak bi kuota mota ezartzen du udal bakoitzarentzat. Hala eta guztiz ere, haren idazketa ez dago argi eta ez dago argiro mugaturik zein gastu ulertu behar diren finkotzat, sarbiderako eskubidearen kuota finkatzeko, ez eta aldagarriak zein diren ere, kontsumoaren araberrako kuota aldagarria ezartzeko.

Agoizko Udalak jo du egin dituen gastuen ehuneko 50 finkoak direla, eta gainerako 50a aldagarriak direla. Eta irizpide horrekin kitapena egin du. Hona emaitza:

Udala	Zenbatekoa
Longida	31.133,85
Urraulbeiti	17.756,77
Irunberri	120.093,54
<b>Guztira</b>	<b>168.984,16</b>

Ez dago jasota kitapen formalik (alkatetzaren ebazpena) egin izana, ez eta udalei zor horien kitapenaren jakinarazpenik egin izana ere. Ez dago, ezta ere, borondatezko elkartearen aktarik, likidazio horiek onartzeko edo ez onartzeko.

Kobratzeko dauden diru-sarrerak.

- 0-3 urtekoen zentrorako diru-laguntza.

102.481 euroko betetzea dauka; horietatik, 81.814 euro 2011-2012 ikasturteari dagozkio, eta 20.667 euro, berriz, 2012-2013 ikasturteari.

2011-2012 ikasturterako diru-laguntza osoa, zeinaren hitzarmena 2012ko urtarrilean sinatu baitzen, 2012ko ekitaldiari egotzi zitzaion.

2012-2013 ikasturterako, ez zen hitzarmena baimendu, zeren eta araudi berriaren arabera, arazoak baitaude zentroko leihoeekin. Hori dela eta, aurreikusitako araubide iragankorrari atxiki behar zaio, eta 2013ko abuztuko diru-laguntzen deialdira jo behar du. Deialdi hori 2013ko urrian ebatzi zen. Hau da, Nafarroako Gobernuak ikasturtea amaitu ondoren ebatzi zuen deialdia.

Emandako zenbatekotik, 20.667 euro 2012ko aurrekontuari egotzi zitzaizkion.

- *Gomendatzen dugu kasu guztietan irizpide berak erabiltzea transferentziak egozteko.*

#### VI.8. KAPITAL-TRANSFERENTZIEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK.

Hasierako aurrekontua 2.034.853 eurokoa zen. Aurrekontu horri 688.160 euroko aldaketak eginez, 2.723.013 euroko behin betiko aurrekontura iritsi zen, 1.203.478 euroko betetzearekin, hau da, aurreikusitakoaren % 44ko betetzearekin. Kontusail horrek aitortutako diru-sarrera guztien ehuneko 34 egiten du.

Kontrapartida gisa, inbertsioek ere betetze-maila txikia daukate.

Egin gabeko diru-sarrera garrantzitsuenak honako hauei dagozkie:

Nafarroako Gobernua	Egin gabea
Uraren goi-hornidurarako diru-laguntza	970.575
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, igogailua jartzeko	163.853
Uraren goi-hornidurarako elkarteko udalak	79.800
Itoitz Fundazioa	66.346

Aitortutako kopurutik, 1.203.478 euro, ehuneko 89 –hau da, 1.070.502 euro– Nafarroako Gobernutik datoz, eta zenbait obraren finantzaketari dagozkio. Horietatik, garrantzitsuenak dira uraren goi-hornidura, sareak eta zolaberritzea, bai eta ur-biltegirako bidearena ere. Inbertsioen atalean aztertu dira.

#### VI.9. HIRIGINTZA

Hirigintza kudeatzeko, kanpoko aholkularien laguntza dago, arlo teknikoan eta juridikoan.

Agoizko Udalaren plan orokorrak 2004ko apirilaren 9an hartu zuen indarra, hura onesten duen foru agindua onetsi zenean.

Indarra hartu zuen unetik, aldaketa puntual egituratzaile bat eta beste aldaketa xehakatu bat egin dira.

Haren betetzeko baldintza batzuk egon dira, zeren eta hura egin zen garaiko aurreikuspenak gaurkoaz oso bestelako egoera bati erantzuten baitzioten.

Bi banaketa-arlotan, urbanizazio-obrak jaso dira eta aurreikusitako eraikinen zati bat eraiki da. Arloetako hirugarrenean ez da jarduerarik garatu.

Gaur egun, aukera dago hirigintza-jarduerak egiteko, bai etxebizitzan, bai industria-esparruan ere.

#### VI.10. MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA

Haren xedea da musika eskola sortu, sustatu, bultzatu eta kudeatzea.

Azken estatutu-aldaketa 2011ko irailean onetsi zen, eta 2012ko apirilaren 23ko aldizkarian argitaratu zen.

Kitatutako gastu eta diru-sarrerek kopuru bera egiten dute, 106.563 euro, zeren eta Udalak defizita estaltzen baitu.

Gastuen ehuneko 91 langile-gastuei dagozkie.

Plantillan musikako irakasleen zortzi lanpostu –lanaldi partzialeko aldizkako langile finkoen lanpostuak dira eta hutsik daude– eta administrari laguntzaileko lanpostu bat –lanaldi partzialeko lan-kontratupeko langile finkoa da– daude.

Eskolak emateko kontratupeko irakasle batzuk badaude; horietatik asko musika eskola Udalarena izan baino lehenagotik daude.

Diru-sarrerei dagokienez, matrikulek 61.585 euro egiten dute eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak, berriz, 20.107 euro.

2011-2012 ikasturtean, 101 ikasle zeuden matrikulatuta; 2012-2013 ikasturtean, berriz, 105 ikasle zeuden matrikulatuta.

Praktikan, Udalak funtsak eskualdatzen dizkio Patronatuari, eta urte amaieran doitze batzuk egiten ditu, defizitaren arabekoak.

Egindako azterlanetik ondorioztatzen da:

- Plantilla organikoak Patronatuko langileen lanpostuak biltzen ditu, baina ez ditu osagarriak zehazten.

- Kontabilitatea kutxa-irizpidearen arabera egiten denez, ez dira erregistratu Gizarte Segurantzaren ekitaldiko zenbateko batzuk, 2013ko urtarrilean ordaindu zirenak. Haien zenbatekoak 5.308 euro egiten du.

- Patronatuaren eta Udalaren itxitako aurrekontuen saldoak ez datoz bat.

- Diruzaintzako arazoak direla eta, faktura batzuk errekaruarekin ordaindu dira.

Hona gomendatzen duguna:

- *Erakunde autonomoko langileen egoera erregularizatzea.*

- *Plantilla organikoan lansari osagarriak zehaztea.*

- *Diruzaintza hobeki kontrolatzea, saldirik ez izatearen ondoriozko faktura-itzulketak eta haien ondoriozko errekaruak saihesteko.*

- *Ekitaldi bakoitzari dagozkion gastuak egozte, gastu horiek zein unetan ordaintzen diren alde batera utzita.*

- *Bi entitateen itxitako aurrekontuetako saldoak erregularizatzea eta funts-eskualdaketen kontabilitate-irizpideak koordinatzea.*

## VI.11. ENPRESA PUBLIKOAK

Kanpondoa S.L. sozietatea Udalaren pertsona bakarreko merkataritza-konpainia bat da, zerbitzuen kudeaketan diharduena. 3.300 euroko kapitalarekin eratu zen 2012ko irailean, eta 2013an inskribatu zen erregistroan. Haren jarduerak 2012ko urrian hasi ziren, osatzen ari zen sozietate gisa. Haren administrazio-kontseilua alkateak eta lau zinegotzik osatzen dute. Udaleko idazkaria da sozietateko idazkaria, baina ez da kontseilukidea.

Sozietateak kirol instalazioen kudeaketarako kontratuaren aurreko esleipendunarenak ziren 10 langile subrogatu zituen.

2012an, gastuak kutxa-irizpidearen arabera kontabilizatu dira, eta 13.040 euroko galerak izan dira.

Txosten hau auditore Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean 2014ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



**AGOIZKO UDALARI BURUZKO 2012ko TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****ALEGAZIOAK**

**AURRETIKOA.**- Egindako fiskalizazioari dela-eta Nafarroako Kontuen Ganberak eman duen behin-behineko txostenari buruzko eta hartan Agoizko Udalaren kontrola eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzeko jasotako gomendio eta neurriei buruzko alegazioen idazki hau halako moldez egituratuta dago non aditzera ematen baitu zein neurri hatu diren jada, aldez aurretik auditoria-taldeak egindako gomendioei jarraituz, gabeziak dituzten alderdiak zuzentze aldera. Halaber, beste neurri batzuk ere aipatzen dira, zeinak laster hartuko baitira, hori guztia Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan jasotakoari jarraituz.

**LEHENA.**- 2012ko KONTU OROKORRARI DAGOKIONEZ (FISKALIZAZIO TXOSTENENKO AURKIBIDEKO IV. ATALA).

IV.1 Kontu Orokorra izena daraman txosteneko atalean, Udalaren barne kontrolari buruzko gabezi batzuk aipatzen dira. Funtsean kudeaketa- eta kontabilitate-prozesuetan eta Udalaren administrazio-prozesuak egokitzeko beharrea zentratuta daude.

Horri dagokionez, Udalak, aurreko jarraibideei eta fiskalizazio txosteneko IV. atalaren amaieran jasotako gomendioei jarraituz, honako jarduketak egin ditu, hartan adierazitako iradokizunak betetze aldera eta prozedura ekonomiko eta kontabilitatekoak egokitze aldera, horrekin aurkitutako gabeziei konponbidea emanez:

- Kontabilitatearen kudeaketa. Kontabilitate-programen eta harekin lotutako tresna informatikoen egokitzea eta modernizatzea. Diru-bilketaren eta kontabilitatearen arteko lotura.

Auditoriaren ondorioak ikusita, kontabilitate-datuak eguneratzera bideratutako kudeaketa informatikoko tresnak ezarri dira, kudeaketaren arloko prozedura administratiboak horri egokitu eta lehen eskuz kudeatzen diren prozesu batzuk informatizatuz eta egunero gaurkotuz.

Horri dagokionez, diru-bilketa eta kontabilitatea elkarrekin lotu dira, eta kutxako liburua Excel orri informatiko batean sartu da. Hartan, datuak zuzenean iraultzen dira elkartutako banku-entitateko (Nafarroako Rural Kutxa) udal titularitateko kontutik zuzenean. Gaur den egunean erregistroak eguneratuta daude.

Horrekin batera, egiaztagiri moduan, ERANTSITAKO 1. AGIRIAREN bidez, Excel orriaren 1. orrialde inprimatua gehitu dugu, non, aurtengo ekitaldiko (2014) kontabilitate-oharrak ageri baitira. Ohar horietan islatzen da kontabilitate-dokumentuari buruzko kontzeptua, ezarpenaren data eta diru-bilketari buruzko datu zehatzak, bai eta kasuko kontabilitate-oharra ere.

Aplikazio egokituak aukera ematen du lotutako informazio-iragazkiak lortzeko, harekin, besteak beste, eta kudeaketan eragin handiagoa izate aldera, kontabilitate-programako zergei buruzko datuak eta erregistroak iraultzeko. ERANTSITAKO 2. AGIRI gisa zirkulazioaren gaineko zergaren mugimenduen egunkaria gehitu dugu, bai eta oharpen horri lotutako mugimenduen kontabilitate-dokumentua ere, 2014ko maiatzeko iragazkia aplikatuta. Bertan ikus daitezke kontusail horrekin lotutako mugimenduak: diru-sarreraren aitortpena, itzulketei buruzko oharpenak, behin betiko bajak eta abar.

Zentzu berean eta, era berean, argigarri gisa, ERANTSITAKO 3. AGIRIAN, 2014-05-31ko fakturen aitortpena islatzen duen kontusailari dagokion mugimenduen eguneroko orria gehitu dugu.

Adierazitako prozesuak erabiltzeak aukera eman du kudeaketa-prozedurak modernizatzeko eta gaurkotzeko ez ezik, kontabilitate-oharpen horiei lotutako eskuzko prozesuak deuseztatzeko ere, kasuan kasuko errolden "punteatzeak" kenduz; izan ere horiek izugarri geldotzen zuten kontabilitate prozesua, eta kudeaketa gaurkotua eragozten zuten.

Era berean, kontabilitatearen kudeaketa eguneratuak aukera emanen du egoki betetzeko aurrekontua eta kontu orokorra legez ezarritako epeetan onesteari buruzko betebeharra.

-Eginkizunen mugatzea.

Kontabilitate-prozesuan esku hartzen duten langileen eginkizunak mugatzeari buruz txostenean egindako gomendioari jarraituz, Udala esparru horri lotutako langileen eskudantziak berrantolatzen ari da, kudeaketan esku hartzen duten udal langileei egoztekoak zaizkien kontabilitate-prozesu eta -prozedurak zehatzuz eta aholkulari ekonomikoari esleitutako eginkizun zehatzak mugatuz, berari dagokion aholku ematearen eta kasuko kontabilitate-prozesuetan eta prozesu ekonomiko-finantzarioetan laguntzearen eta haiek berrikustearen. esparru eksklusiboan.

-Aurrekontu-betetzearen oinarriak.

Udalak, 2015eko ekitaldirako, kasuko aurrekontu-betetzearen oinarrien onespena beteko luke.

- Diruzaintza-gerakineko saldo negatiboari dagokienez.

Fiskalizazio-txostenean gomendatutakoari jarraituz, Udalak aurrekontuz kanpoko saldoak erregularizatzeari ekin behar dio, saneamendu-kanonaren likidazioei dagozkien oharpenak zuzenduz, Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.ri (NILSA) dagokionez, bai eta balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZa) itzulketei dagozkien zenbatekoak ere, betiere dagoen diruzaintza-gerakina errealitateari egokituz fiskalizazio-organoak informatutako moduan. Kasua bada, 2013ko aurrekontuaren itxierari begira, behar diren erabakiak hartuko dira, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

- Balio erantsiaren gaineko zergari (BEZa) dagozkion zerga-aitorpenak kontabilitatearekin berdinkatzea.

Kontabilitate-izaerako prozedurak modernizatzera bideratutako kontabilitate-prozesuak egokitzeko jarduketari jarraituz, zerga horri aplikatzekoak zaizkien datuak sartzen eta haien lotura informatikoa egiten ari da, horren bidez une honetara arte zergen kudeaketan erabili diren eskuzko prozedurak kenduz.

- Udalaren bulego orokorretan espazioak berrantolatzeari dagokionez.

Fiskalizazio-organoak horri buruz egindako gomendioei jarraituz eta Udalaren kudeaketaren efizientzia- eta optimizatzeko irizpideak betez, udaletxearen eraikuntza- eta antzinatearen ezaugarriak –1868koa da– kontuan hartuta, bertan kokatuta baitaude areto horiek eta haien kokalekuak udal jardueraren kudeaketa zailtzen baitu, eraikinen zaharberritzean eta erreforman espezializatuta dagoen goi mailako arkitekto Rafael Aristu Arcelay jaunari udaletxearen egokitzapena enkargatu zaio.

Horretarako, proiektu-egileak udal eraikineko aretoak berrantolatzeko proposamenaren aurrerapen bat aurkeztu du, ERANTSITAKO 4. AGIRI gisa gehitu duguna. Behe-solairuaren eta lehen solairuaren egungo egoeraren eta proposatzen den egoeraren xehetasunak ematen dira bertan. Eraikinaren fatxada nagusitik dagoen sarrera nagusia aldatzen da, eta igogailu bat jartzen da, jendeari arreta emateko esparrurako sarbidearekin, eta jendaurreko egungo bulegoak berrantolatzen dira, alkatetzaren eta idazkaritzaren bulegoak bereiziz arreta orokorrerako esparrutik.

Aurrerapenaren proposamena jada lantzen ari da, eta hari ekinen zaio behin betiko proiektua amaitzen denean eta unean uneko aurrekontu-aukeren arabera, zeinek haren norainokoa determinatuko baitute.

#### **BIGARRENA.- IRUZKIN ETA GOMENDIOEI DAGOKIENEZ (FISKALIZAZIO TXOSTENENKO AURKIBIDEKO VI. ATALA).**

Txosteneko VI. atalak iruzkin, ondorio eta gomendio batzuk jasotzen ditu kudeaketa-arlo bakoitzerako. Fiskalizazio-organoak jotzen du haiek aplikatu beharko lituzkeela antolamendu-sistemak eta administrazio-prozedura orokorrak hobetze aldera.

Horri dagokionez, VI. atalean jasotako gomendioen zati handi bati lehenengo alegazioari erantzun diogu. Erantzun horren edukia emantzat jotzen dugu, beharrezkoak ez diren tautologiak saiheste aldera, eta jakinda alderdi horiek bereziki kontabilitatearen esparruari eta esparru ekonomiko-finantzarioari dagozkiela.

Hala eta guztiz ere, txosteneko VI. ataleko hurrengo tartekiek bestelako izaera duten beste gomendio batzuk badauzkate, ondoren iruzkinduko ditugunak:

- Laneko kudeaketari buruzko prozedura orokorrari dagokionez (txosteneko VI.2 atala).

Fiskalizazio txostenak gomendatzen du nominen kudeaketarako prozedura orokorra berrikusteko eta esparru horretan eginkizun hori esleitua duen kanpoko enpresak egiten duen lanaren gaineko kontrola egiteko.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu ekitaldi honen hasieratik laneko kudeaketa beste aholkularitza enpresa bati esleitu zaiola, eta horri dagokionez kudeaketa orokorreko prozedurak aldatu direla, Udalak eduki beharreko kontrolari egokituz. Uneoro egonen da datuen komunikazio behar bezala eguneratua eta udal langileen eta kanpoko aholkularitzaren artean erabateko koordinazioa egonen da.

- Kanpoko zerbitzuen kontratazioari dagokionez (txosteneko VI.3 atala).

Txostenak, zuzeneko kontratazioaren atalasea gainditzen duen kanpoko zerbitzu bakartzat jotzen du katastroaren mantentze-lanez arduratzen den enpresari dagokiona. Horri buruz, adierazi behar dugu 2014ko ekitaldirako kudeaketa horretara bideratutako gastua 15.000,00 euroko atalasetik behera egoteraino gutxitu dela.

- Agoitz, Irunberri, Longida eta Urraulbeitiko udalen borondatezko elkarteari dagokion uraren goi-horniduraren finantzaketarako hitzarmenari dagokionez (txosteneko VI.7 atala).

Fiskalizazio txostenak aipatzen du, elkartearen kudeaketak sortutako gastuen kitapenari dagokionez –Agoizko Udalarari esleitutako eginkizuna da–, erakundea osatzen duten gainerako udalei ez zaiela jakinarazi 2008-2012 aldiari dagozkion gastuen banaketa.

Adierazi beharra daukagu ezen, 5. eta 6. ERANSKIN gisa gehitu ditugun AGIRIETAN azaltzen diren zor-kitapenen bitartez egiaztatzen den bezala, formalki jakinarazi zaiela elkartea osatzen duten udalei 2008-2012 aldiari dagozkion gastuen kitapena, bai eta 2013koa ere. Udalek, gainera, kitapen horiei buruzko adostasuna adierazi dute eta Longidakoak eta Urraulbeitikoak kasuko zenbatekoak ordaindu dituzte. Irunberriko Udalaren adostasuna falta da, banaketa-sistemaren justifikazioari buruzko txosten teknikoa bidaltzeko zain baitzegoen. Txosten hori jada bidalita dago eta 7. ERANSKINEKO AGIRI gisa gehitu dugu.

#### **HIRUGARRENA. BEHIN-BEHINEKO FISKALIZAZIO-TXOSTENAREN ONDORIOAK.**

Fiskalizazio-txostenean esaten den bezala, nabarmendu beharra dago kontabilitate-prozedurak egokitzeko beharra, haiek modernizatuz eta egokituz eta prozedura horietan sartuz eskatutako

prozesuak, esparru horretan jada aurkitu diren gabeziak zuzentze aldera. Azpimarratu behar da, era berean, txostenean bertan aditzera ematen den bezala eta alegazioen idazki honetan egiaztatu den bezala, ezen auditoriako lantaldeak aipatutako neurriak, haien handi batean, jada ezarri direla, eta beste batzuk berehala ezarriko direla.

Modernizatze eta gaurkotze neurri horiek ezartzea aukera ematen ari da kudeaketa-prozedurak optimizatzeko, eskuzko prozesuak eta kontabilitatearen mantsotasuna kenduz, hartara kontabilitate-kudeaketa eguneratua lortuz.

Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago, era berean, ezen, fiskalizazio-txostenak ondorioztatzen duen bezala eta aipatutako salbuespenekin, "Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun printzipioari jarraituz egin dela".

Halaber, 2012ko ekitaldiak, txostenak berak aipatzen duten bezala eta jada urteko kontu orokorrean sartuta zegoen oroitidazkian jaso bezala "ekitaldi atipikoa izan da", besteak beste egoera ekonomiko orokorraren moda nagusiaren ondorioz eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrak ekonomikoaren ondorioz. Izan ere, diru-sarreraren kontusailetan gutxitze handia gertatu denez, udal ekonomian zama garrantzitsu bat gertatu da. Hori dela eta, Udalak eragin handiko neurriak hartu ditu gastua gutxitzeko. Neurri horiek, aipatu bezala, jada ekitaldi horretako hartu diren, baina hurrengo ekitaldietan gauzatu dira.

Horrenbestez,

**ESKATZEN DIZUT:** Idazki honetan eta hari atxikitakoak aurkeztutzat emanda eta haiek onartuta, azaldutakoa dela eta, Agoizko Udalari buruzko 2012ko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren alegazioak aurkeztutzat ematea.

Agoitzen, 2014ko ekainaren 26an.

Alkatea, Unai Lako Goñi

## **AGOIZKO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA**

Agoizko Udaleko alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txosten honi gehitu zaizkio, Udalak egindako eguneratzeak justifikatzen dituzten eranskinak kenduta; izan ere, haien luzera eta edukia direla eta, jo dugu ez dela egokia haiek argitaratzea, eta erakunde honen artxiboetan gorde ditugu. Alegazio hauek txostenaren edukian eraginik ez dutela ulertuta, zeren eta txostenean iruzkindutakoari buruzko azalpenak edo zabalpenak baitira, behin-behineko txostena behin betikotzat jotzen da.

Iruñean 2014ko uztailaren 2an.

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas